**Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2022ko martxoaren 4ko EBAZPENA, aurreko ikasturteetarako baimendutako zerbitzu-eginkizunak luzatzeko prozedura ezartzen duena.**

*Uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuak,* Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko funtzionario irakasleen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duenak, 12. artikuluan xedatzen duenez, *"deialdi espezifikoetan kontuan hartu ahal izango da zerbitzu-eginkizuna hurrengo ikasturteetarako luzatzeko aukera, egindako lana era positiboan aldez aurretik baloratu ondoren ".*

Horren arabera, eta 71/2021 Dekretuak, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituenak, 10. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta,

**EBAZTEN DUT**

**LEHENA.-**Aurreko ikasturteetarako baimendutako zerbitzu-eginkizunak luzatzeko prozedura ezartzea, ebazpen honen eranskinean agertzen diren deialdi espezifikoetan.

**BIGARRENA.-** 2021/2022ko ikasturtean zerbitzu-eginkizunetan aritzeko baimena lortu eta egoera horretan 2022/2023ko ikasturtean jarraitu nahi dutenek izango dute zerbitzu-eginkizun hori luzatzea eskatzeko aukera.

**RESOLUCIÓN de 4 de marzo de 2022, de la Directora de Gestión de Personal del Departamento de Educación, por la que se establece el procedimiento de prórrogas de comisiones de servicio autorizadas para cursos escolares anteriores.**

El artículo 12 del *Decreto 185/2010, de 6 de julio,* por el que se aprueba el Acuerdo Regulador de las condiciones de trabajo del personal funcionario docente no universitario de la Comunidad Autónoma de Euskadi establece que *"las convocatorias específicas podrán contemplar la posibilidad de prórroga de la comisión de servicios para sucesivos cursos previa valoración positiva del trabajo desempeñado".*

En su virtud, y teniendo en cuenta lo dispuesto en el artículo 10 del Decreto 71/2021, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Educación,

**RESUELVO**

**PRIMERO.-**Establecer el procedimiento de prórrogas de comisiones de servicios autorizadas para cursos escolares anteriores en las convocatorias específicas recogidas en el anexo de esta Resolución.

**SEGUNDO.-** Podrán solicitar prórroga quienes hayan obtenido autorización para comisión de servicios en el curso escolar 2021/2022 y deseen continuar desempeñando la misma durante el curso 2022/2023.

**HIRUGARRENA.**- Zerbitzu-eginkizunaren luzapenaren eskaera edo uko egitea HEZIGUNEA atariaren bidez (https://hezigunea.euskadi.eus) egin beharko da "zerbitzu-eginkizunen luzapena" bannerretik, eta beharrezkoa izango da eskatzailea aldez aurretik identifikatzea (NAN/AIZ + Pasahitza, edo XLNets-en erabiltzailea, baldin eta halakorik badago).

**Eskabideak aurkezteko epea 2022ko martxoaren 7tik martxoaren 11ra** bitartekoa izango da, biak barne.

**TERCERO.**- La solicitud o la renuncia de la prórroga de la comisión de servicios, deberá realizarse a través del portal HEZIGUNEA(https://hezigunea.euskadi.eus) desde el banner: "Prórroga de comisiones de servicios" y será necesaria la identificación previa (DNI/NIE + Contraseña, o usuario de XLNets si ya se dispone) de la persona solicitante.

El **plazo de presentación de solicitudes será entre los días 7 de marzo y 11 de marzo de 2022**, ambos inclusive.

**LAUGARRENA.-** Zerbitzu-eginkizuna luzatu ahal izateko baldintzak hauek dira:

1.-Ezohiko deialdia eragin zuen premiak jarraitzea.

2.- Funtzioak betetzen ari ziren lanpostua eta espezialitatea mantentzea.

3.- Ikastegiak egindako aldeko txostena izatea.

4.- *Abenduaren 26ko 53/1984 legeak, Administrazio Publikoaren Zerbitzuko pertsonalaren bateraezintasunari buruzkoak,* arautzen dituen bateraezintasun-egoeretakoren batean ez egotea.

**CUARTO.-** Los requisitos para obtener la prórroga correspondiente son:

1.- Mantenimiento de la necesidad que dio origen a la convocatoria de provisión extraordinaria.

2.- Mantenimiento del puesto y la especialidad en la que se estaban realizando las funciones.

3.- Existencia de informe del centro, que ha de ser favorable.

4.- No estar incurso en ninguno de los supuestos de incompatibilidad regulados en la *Ley 53/1984 de 26 de diciembre, de incompatibilidad del Personal al Servicio de la Administración Pública.*

**BOSGARRENA.-** 2022/2023 ikasturtean praktikaldia egin behar duten langileek ezin izango dute zerbitzu-eginkizuna luzatu, eta aipatutako luzapena eskatzeko eskubidea galduko dute.

Salbuespen gisa, luzatu beharreko zerbitzu-eginkizunean egin ahal izango dira praktikak, betiere bat badatoz hautatu diren espezialitatea eta praktikaldia gainditzeko behar den ordu kopuruarekin.

**QUINTO.-** Aquel personal que tenga que realizar el período de prácticas en el curso 2022/2023 no podrá prorrogar la comisión de servicios; decayendo su derecho a solicitar la referida prórroga.

Excepcionalmente, se podrá realizar las prácticas en la comisión de servicios a prorrogar, siempre que coincida la especialidad en la que han resultado seleccionadas y el número de horas requeridas para superar el período de prácticas.

**SEIGARRENA.-** Aldeko ebaluazio-txostena emateko, eskatzaileak lanpostuan benetan aritu behar izan du 2021/2022ko ikasturtean eguneko 2/3ko gutxienezko lanaldiarekin, ebazpen hau argitara ematen den datara arte.

Salbuespen gisa, amatasun-, aitatasun-, adopzio-, urte sabatikoaren, semea /alaba zaintzeko eszedentziaren edo aldi baterako ezintasunaren kasuetan, benetan aritu izandako denbora aurreko paragrafoan ezarritakoarekin bat ez badator, aurreko ikasturtean eta, behar izanez gero, ikasturte honetan benetan emandako denbora hartuko da kontuan ebaluazioa egiteko orduan.

2021/2022ko ikasturterako lehen aldiz baimendu diren zerbitzu-eginkizunen kasuan, aurreko paragrafoan agertutako egoeretan agertzen badira, eman ahal izango da luzatzeko baimena, betiere ebaluazio-txostena negatiboa ez bada.

**SEXTO.-** Para la emisión del informe favorable de evaluación será necesario que la persona solicitante de la prórroga haya desempeñado efectivamente el puesto con una jornada diaria mínima de 2/3, a lo largo del curso escolar 2021/2022, hasta la fecha de la publicación de la presente resolución.

Excepcionalmente, para los casos de maternidad, paternidad, adopción, año sabático, excedencia por cuidado de hijo o hija o incapacidad temporal, en que el desempeño efectivo no se ajuste a lo establecido en el párrafo anterior, se tendrá en cuenta para la citada evaluación el desempeño efectivamente realizado durante el curso anterior y, en su caso, durante el presente curso.

En el caso de comisiones de servicio autorizadas por primera vez para el curso 2021/2022 que se encuentren en los supuestos contemplados en el párrafo anterior, se podrá autorizar la prórroga, siempre que no exista informe de evaluación negativo.

**ZAZPIGARRENA.-** Eskaerak hasitako espedientean bertan, eskatzaileak egindako irakaskuntza-lanaren ebaluazioari buruzko txostena igorri beharko du dagokion ikastetxeko zuzendaritzak, HEZIGUNEA plataforman bertan.

Hezkuntzako Ikuskarien Kidegoan zerbitzu-eginkizunak luzatzen badira, aurreko paragrafoan aipatutako txostena dagokion Lurralde Ikuskaritzako Burutzak emango du, HEZIGUNEA plataforma berean.

**Txosten horiek egiteko epea 2022ko martxoaren 18an amaituko** da.

**SÉPTIMO.-** La dirección del centro educativo correspondiente deberá emitir su informe de evaluación del desempeño de la labor docente realizada por la persona solicitante en el propio expediente iniciado por la solicitud, en la misma plataforma HEZIGUNEA.

En el caso de prórrogas de comisiones de servicios en el Cuerpo de Inspectores e Inspectoras de Educación, el informe mencionado en el párrafo anterior será emitido por la Jefatura de la Inspección Territorial correspondiente, en la misma plataforma HEZIGUNEA.

El **plazo para la emisión de los citados informes finalizará el 18 de marzo de 2022.**

**ZORTZIGARRENA.-** Zerbitzu-eginkizuna luzatzeko edo berorri espresuki uko egiteko eskaera ebazpen honetan xedatutakoaren arabera egiten ez dutenek galduko dute zerbitzu-eginkizunean jarraitzeko eskubidea eta zerbitzu-eginkizun horri uko egiten diotela interpretatuko da.

**OCTAVO.-** Quienes no realicen la solicitud de prórroga o la renuncia expresa conforme a lo establecido en la presente resolución decaerán en su derecho a continuar en la comisión de servicios correspondiente entendiéndose que renuncian a la citada comisión.

**BEDERATZIGARRENA.-** Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenaren bidez emango da zerbitzu-eginkizunak luzatzeko baimena, eskatzaileek Deialdi honetako Laugarren atalearen baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatu ondoren. Uko egiteak aipatutako ebazpenean ere onartuko dira.

**NOVENO.-** Las prórrogas se concederán mediante Resolución de la Directora de Gestión de Personal una vez comprobado que las personas solicitantes cumplen todos los requisitos establecidos en el Resuelvo Cuarto. Las renuncias se aceptarán de plano en la citada resolución.

Zerbitzu-eginkizunak luzatzea emateari eta uko egiteak onartzeari buruzko ebazpena, deialdi espezifiko bakoitzean, Hezkuntza Sailaren web orrian emango da argitara, jakinarazpenaren ondorioetarako.

La resolución de concesión de prórrogas y aceptación de renuncias por cada convocatoria específica se publicará, a efectos de notificación, en la página web del Departamento de Educación.

Aipatutako ebazpena argitara eman ondoren, ezin izango da luzatzeari uko egitea eskatzeko idazkirik aurkeztu.

Una vez publicada la citada resolución no se admitirá la presentación de renuncia a la prórroga.

Luzapenak ez du ondoriorik izango, baldin eta lanpostu hutsik ez badago benetan gauzatzeko, lekualdaketa-lehiaketan erregelamenduz betetzen delako edo lanpostuari dagokion betetzeko modua dagoelako.

La prórroga quedará sin efecto en el caso de que no hubiese plaza vacante para su materialización efectiva, a consecuencia de su cobertura reglamentaria en concurso de traslados o la forma de provisión que corresponda al puesto.

Eraginik gabe geratuko da, halaber, lanpostuaren titularra lanera itzultzen bada edo arauz betetzen bada.

También quedará sin efecto en el supuesto de reingreso de la persona titular del puesto o cualquier cobertura reglamentaria.

Gorako errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenaren kontra, hilabeteko epean, argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Contra la resolución de la Directora de Gestión de Personal podrá interponerse recurso de alzada ante el Viceconsejero de Administración y Servicios en el plazo de un mes desde el día siguiente al de su publicación.

**HAMARGARRENA.- HAMAIKA ESKU PROGRAMA. ESKU-HARTZE GLOBALEKO PROIEKTUAK, GIZARTE-INGURUNE BEHARTSUETAKO IKASTETXE PUBLIKOAK. IES IBARREKOLANDA, IES USANDIZAGA-PEÑAFLORIDA-AMARA, KIROLENE, IKASKUNTZA BIRTUAL ETA DIGITALIZATUETARAKO LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXE BATERATUA (BIRTLH), UHEI/IVED Y ESKOLA TXIKIAK.**

**DÉCIMO.- PROGRAMA DE HAMAIKA ESKU. PROYECTOS DE INTERVENCIÓN GLOBAL, CENTROS PÚBLICOS EN MEDIOS SOCIALES DESFAVORECIDOS. IES IBARREKOLANDA, IES USANDIZAGA-PEÑAFLORIDA-AMARA, KIROLENE, CENTRO INTEGRADO DE FORMACIÓN PROFESIONAL DE APRENDIZAJES VIRTUALES Y DIGITALIZADOS (CIFPD), UHEI/IVED Y ESKOLA TXIKIAK.**

Bederatzigarren atal honetako goiburuan deskribatutako deialdiren

El personal funcionario interino ocupando una comisión de servicios de

bateko zerbitzu-eginkizunetan diharduten bitarteko funtzionarioek beste izendapen berri bat egin ahal izango dute lanpostu eta espezialitate verberan azken ikasturtea eman duten ikastetxean, ikasturte hasierako esleipenetan Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak ezartzen duen ohiko hornitzeko prozeduraren bidez, ikastetxeetan egonkortasuna bermatze aldera.

alguna de las convocatorias descritas en el encabezado de este apartado noveno, podrá optar a un nuevo nombramiento en la plaza y especialidad que estaba ocupando en el centro donde ha impartido el último curso escolar mediante el procedimiento de provisión ordinario establecido por la Dirección de Gestión de Personal en las adjudicaciones de comienzo de curso encaminado a garantizar la estabilidad en los centros educativos.

Horretarako, langile horiek adierazi beharko dute ikastetxe berean jarraitu nahi dutela aurreko ikasturtean betetzen zuten plaza berean, 2022-2023 ikasturte-hasierako esleipenetan gaituko den parte hartzeko formularioaren bidez, eta zerbitzu-eginkizuna amaitukoda, funtzionarioak hornitzeko ezohiko modu bat direlako eta bitarteko langileen lanpostuak betetzeko ohiko bidea ikasturte hasierako esleipenak direlako.

Para ello, este personal deberá manifestar su voluntad de continuar en el mismo centro en una plaza idéntica a la que venía ocupando el curso anterior mediante el formulario de participación que se habilite en las adjudicaciones de comienzo de curso 2022-2023, finalizando la comisión de servicio, al tratarse de una forma extraordinaria de provisión del personal funcionario, siendo la vía ordinaria de provisión de plazas del personal interino las adjudicaciones de comienzo de curso escolar.

Horregatik, 2022-2023 ikasturtean 2021-2022 ikasturtean betetzen zen plaza bera betetzeko eskaera 2022-2023 ikasturte hasierako esleipenetan parte hartzeko formularioaren bidez egin beharko da, eta ez zerbitzu-eginkizunen luzapenen deialdi honen bidez.

Es por ello que, la solicitud de ocupar el curso 2022-2023 la misma plaza que se venía ocupando el curso escolar 2021-2022 se tendrá que realizar mediante el formulario de participación de las adjudicaciones de inicio de curso 2022-2023, y no mediante la presente convocatoria de prórrogas de comisiones de servicio.

Bederatzigarren ataleko goiburuan adierazitako programa eta proiektuetako lanpostuen kasuan, autonomia-erkidegoko lekualdatze-lehiaketa bidez beteko direnak, unibertsitateaz kanpoko irakasleen kidegoetako funtzionarioak, Euskal Autonomia Erkidegoaren mendeko ikastetxeetan lanpostuak betetzeko, 2021eko azaroaren 5eko Aginduaren bidez araututa, zerbitzu-eginkizunaren luzapena baldintzatuta egongo da plaza eta espezialitatea bide horretatik behin betiko hornidurara, eta zerbitzu-eginkizunaren luzapena ondoriorik gabe geratuko da, lekualdatze-lehiaketa delako lanpostu horiek betetzeko ohiko mekanismoa, karrerako funtzionarioen kasuan.

Para el caso de los puestos de trabajo de los programas y proyectos indicados en el encabezado de este apartado noveno, que se vayan a proveer mediante concurso de traslados de ámbito autonómico, del personal funcionario de los cuerpos docentes no universitarios para la provisión de puestos de trabajo en centros docentes dependientes de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, regulado mediante Orden de 5 de noviembre de 2021, la prórroga de la comisión de servicios estará supeditada a la provisión definitiva de la plaza y especialidad por dicha vía, quedando la prórroga de la comisión de servicios sin efecto, al ser el concurso de traslados el mecanismo ordinario de provisión de

referidos puestos, para el caso de las y los funcionarios de carrera.

**HAMAIKAGARRENA.- DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO OINARRIZKOA**

Zure datu pertsonalak erabiliko dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio: Langileak kudeatzea.

Arduraduna: Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Helburua: Irakasle eta irakasle ez diren langileen kudeaketa.

Legitimazioa:
- Tratamendua beharrezkoa da, interesduna alderdi duen kontratu bat betearazteko.
- Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.
- 2/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Unibertsitatekoez kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoei buruzkoa.
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.

Hartzaileak:
- Estatuko Administrazioko beste organo batzuk.
- Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

Eskubideak: Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.

Informazio osagarria: Gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua: www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/048100-capa2-eu.shtml

**UNDÉCIMO.- INFORMACIÓN BÁSICA SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS**

Sus datos de carácter personal serán tratados e incorporados a la actividad de tratamiento denominada: Gestión de personal.

Responsable: Dirección de Gestion de Personal, Departamento de Educación.

Finalidad: Gestión de personal docente y no docente.

Legitimación:
- Tratamiento necesario para ejecutar un contrato en el que el interesado o interesada es parte o para la aplicación a petición de este de medidas precontractuales.
- Tratamiento necesario para el cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento.
- Ley 2/1993, de 19 de febrero, de Cuerpos Docentes de la Enseñanza no Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público.

Destinatarios:
- Otros órganos de la Administración del Estado.
- Otros órganos de la Comunidad Autónoma.

Derechos: Usted tiene derecho a acceder, rectificar y suprimir los datos, así como otros derechos que se recogen en la información adicional.

Información adicional: Puede consultar la información adicional y detallada sobre Protección de Datos en nuestra página web: www.euskadi.eus/clausulas-informativas/web01-

Araudia:
• Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra (www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf).
• 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf).

sedepd/es/transparencia/048100-capa2-es.shtml

Normativa:
• Reglamento General de Protección de Datos (https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES).
• Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales (www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673).

**HAMAIKAGARRENA**.-*Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeak* 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, gorako errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

**UNDÉCIMO**.-Con arreglo a lo dispuesto en los artículos 121 y siguientes de la *Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas*, contra la presente resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Viceconsejero de Administración y Servicios en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko martxoaren 4an.

Vitoria-Gasteiz, a 4 de marzo de 2022.

**Blanca María Guerrero Ocejo**
**LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**
**DIRECTORA DE GESTIÓN DE PERSONAL**

**ANEXO / ERANSKINA**

| **Necesitan informe de evaluación favorable del Centro:** | **Ikastetxearen aldeko ebaluazio-txostena beharrezkoa da:** |
|---|---|
| • Hamaika Esku.<br>• Proyectos de intervención global.<br>• Centros públicos en medios desfavorecidos<br>• IES Ibarrekolanda<br>• IES Usandizaga-Peñaflorida-Amara<br>• Ibaiondo de Zumarraga<br>• Kirolene<br>• Programas complementarios de escolaración<br>• Necesidades educativas especiales<br>• Atención ed. hospitalaria, domiciliaria y terapéutico educativa.<br>• Tknika<br>• IVAC<br>• CIFP Emilio Campuzano LHII<br>• CIFP Kardala LHII<br>• Eskola Txikiak<br>• Berritzegune: Secretarios/as documentalistas<br>• Berritzegune: Colaboradores/as<br>• Berritzegune: Servicios de apoyo<br>• Ingurugela<br>• Irale<br>• Barnetegi<br>• Centro experimentación escolar de Pedernales (Urdaibai)<br>• Centro Integrado de Formación Profesional de Aprendizajes Virtuales y Digitalizados (CIFPD)<br>• ISEI-IVEI<br>• IDEATK<br>• Servicios en el programa de actividades extraescolares | • Hamaika Esku.<br>• Esku-hartze globalaren proiektuak.<br>• Ingurune baztertuetan dauden ikastetxeak<br>• IES Ibarrekolanda<br>• IES Usandizaga-Peñaflorida-Amara<br>• Zumarragako Ibaiondo zentroa<br>• Kirolene<br>• Eskolatzeko programa osagarriak<br>• Hezkuntza premia bereziak<br>• Ospitaleko eta etxeko hezkuntza arretarako eta arreta terapeutiko- hezigarria.<br>• Tknika<br>• IVAC<br>• CIFP Emilio Campuzano LHII<br>• CIFP Kardala LHII<br>• Eskola Txikiak<br>• Berritzegune: Idazkari dokumentalistak<br>• Berritzegune: Laguntzaileak<br>• Berritzegune: Laguntza zerbitzuak<br>• Ingurugela<br>• Irale<br>• Barnetegi<br>• Sukarrieta Eskola Saiakuntzarako Zentroa (Urdaibai)<br>• Ikaskuntza Birtual eta Digitalizatuetarako Lanbide Heziketako Ikastetxe Bateratua (BIRTLH)<br>• ISEI-IVEI<br>• IDEATK<br>• Eskolaz kanpoko jardueren programan zerbitzuak |
| **Necesitan informe de evaluación favorable de la Inspección Territorial** | **Lurralde Ikuskaritzaren aldeko ebaluazio-txostena behar dute** |
| • Inspección | • Ikuskaritza |